

**GIZARTEAN ESKU HARTZEKO ETIKA
BATZORDEAREN BARNE ARAUDIA**

**GIZARTEAN ESKU HARTZEKO ETIKA BATZORDEAREN ARAUDIA
(ETIKA BATZORDEA)**

I. ATALA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua: Izendapena eta definizioa
2. artikulua: Jardueraren eremu instituzionala
3. artikulua: Mendekotasuna
4. artikulua: Kokalekua
5. artikulua: Baliabide materialen eta giza baliabideen zuzkidura
6. artikulua: Etika Batzordearen helburuak
7. artikulua: Etika Batzordearen eginkizunak
8. artikulua: Etika Batzordearen egiaztapena

**II. ATALA: ETIKA BATZORDEKO KARGUDUNAK ETA KIDEAK: OSAERA,
EGITURA ETA EGINKIZUNAK**

9. artikulua: Osaera
10. artikulua: Egitura
11. artikulua: Lehendakaritzaren eginkizunak
12. artikulua: Lehendakariordetzaren eginkizunak
13. artikulua: Idazkaritzaren eginkizunak
14. artikulua: Etika Batzordeko kideen eginkizunak

III. ATALA: FUNTZIONAMENDUA

15. artikulua: Etika Batzordeko kide izatea
16. artikulua: Etika Batzordeko kide izateari uztea
17. artikulua: Etika Batzordea berritzea
18. artikulua: Etika Batzordearen bilerak
19. artikulua: Ohizko bilerak
20. artikulua: Ezohizko bilerak

IV. ATALA: LAN METODOLOGIA

7. artikulua: Etika Batzordera jotzea
22. artikulua: Etika Batzordearen ebazpenak
23. artikulua: Konfidentziasuna
24. artikulua: Jarduerak
25. artikulua: Urteko memoria
26. artikulua: Kanpoko harremanak
27. artikulua: Araudia aldatzea

I. ATALA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua: Izendapena eta definizioa

Gizartean esku hartzeko Gipuzkoako Esku Hartzeko Etika Batzordea Gipuzkoako gizarte zerbitzuen eta gizarte eta osasun zerbitzuen esparruan parte hartzen duten pertsonen zerbitzura dagoen batzorde aholku-emailea da, ez da batzorde betearazlea.

Etika Batzordea gure lurraldeko gizarte zerbitzuetan edo gizarte eta osasun zerbitzuetan kudeaketaren alorrean edo teknikari lanetan ari diren nahiz laguntzen jarduten duten pertsonen eta zerbitzu horien erabiltzaileei eta beren familiei aholkua emateko egiaztatutako batzordea da.

Etika Batzordea diziplina arteko batzordea da, burujabea, eta bere eginkizuna gizartearen alorreko esku-hartzean sortzen diren gatazka etikoei irtenbidea emateko egon daitezkeen aukerak aztertzea eta horiei buruzko aholkua ematea da.

Etika Batzordearen helburua edo xedea da gizarte zerbitzuak eta gizarte eta osasun zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen emandako laguntzaren kalitatea alderdi etikoaren ikuspegitik hobetzea.

2. artikulua: Jardueraren lurralde eremua eta eremu instituzionala

Etika Batzordeak aztertzen ditu gizarte zerbitzuetan eskumena duen eta eman beharreko txostenak egiten dituen Gipuzkoako Foru Aldundiaren departamentuak gizartearen alorrean esku hartzean sor daitezkeen gatazka etikoak. Horrez gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoko gizarte zerbitzuan eta gizarte eta osasun zerbitzuan ari diren beste erakunde batzuek egiten dizkioten kontsultei erantzuten die, hala behar dutenean.

3. artikulua: Mendekotasun organikoa

Etika Batzordea gizarte zerbitzuen eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiaren departamentuaren mende egongo da. Aipatutako departamentuak Etika Batzordeari eskainiko dizkio Batzordearen lanaren arabera beharrezkoak diren azpiegiturak eta laguntza logistikoa. Batzordeak, hala ere, egiten dituen jarduera guztietan erabateko autonomia funtzionala eta antolakuntzakoa izango du.

4. artikulua: Kokalekua

Etika Batzordearen bilerak aldizka egingo dira, une egokian jakinarazten den lekuan.

5. artikulua: Baliabide materialen eta giza baliabideen zuzkidura

1. Etika Batzordeak honako elementu hauek izan behar ditu bere funtzionamendua bermatzeko:
 - Egoitza edo erreferentziazko lekua.
 - Idazkaritza, berezkoa edo partekatua, eta administrazio-laguntzaileak.
 - Agirien konfidentzialtasuna bermatzen duten altzariak.
 - Euskarri informatikoa.
 - Lana bera egiteko beharrezkoak diren bestelako laguntzak.
2. Goian adierazitako baliabide materialez eta giza baliabideez hornitzeko gastua gizarte zerbitzuen eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiaren departamentuari urtero esleitzen zaion aurrekontuan aurreikusi beharko da, bertako Idazkaritza Teknikoaren bitartez.

6. artikulua: Etika Batzordearen helburuak

Honako hauek dira Etika Batzordearen helburu nagusiak:

1. Gizarte zerbitzuen esparruan eta, oro har, komunitatean, laguntzako etikarekin lotura duten gaiei buruzko eztabaida sustatzea profesionalen artean.
2. Esku hartzen dutenen artean –profesionalak, erabiltzaileak eta erakunde edo entitateak– gatazka etikoa gertatzen denean, erabakitze prozesuak erraztea.
3. Gipuzkoako laguntza sarean etika batzorde berriak (GEHEB) eratzeko laguntza eta erraztasunak ematea eta lankidetzan aritzea.

7. artikulua: Etika Batzordearen eginkizunak

1. Etika Batzordeak, bere helburuak garatzeko, eginkizun hauek hartzen ditu bere gain:

GIZARTEAN ESKU HARTZEKO ETIKA BATZORDEAREN ARAUDIA (ETIKA BATZORDEA)

- a) Aholku eske aurkeztu diren laguntzako kasuak aztertzea eta dagozkien txostenak eta gomendioak egitea.
- b) Gatazka etikoak behin eta berriro gertatzen diren egoeretan jarduteko protokoloak edo gomendioak emateko dokumentuak lantzea eta proposatzea.
- c) Etika Batzordearen jarduera eremuan esku hartzen duten profesionalei eta bereziki batzordekideei laguntzaren alorreko etikan prestatzeko lankidetzan aritzea.
- d) Batzordekideei antolatzen diren eta baliagarriak izan daitezkeen etikari buruzko jarduera guztien berri ematea.
- e) Etika Batzordearen funtzionamendurako araudia lantzea, onartzea eta, bidezkoa bada, aldakuntzak egitea.
- f) Etika Batzordeak urtero egiten dituen jardueri buruzko memoria egitea eta gizarte zerbitzuen eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiaren departamentura igortzea.

2. Honako hauek ez dira Etika Batzordearen eginkizunak:

- a) Ekintza judizialetan edo administrazio errekurtsuetan informazioa eman, txosten teknikoak egin, eta esku hartzea, edo ekintza horiek sustatzea.
- b) Kexa edo erreklamazio judizial edo administratiboekin zerikusia duten kasuetan aholku ematea. Etika Batzordeak jarduteari utziko dio, aholku eskaeraren bat bideratzen ari dela ekintza judizial edo administratiboetara hasiera ematen zaienean.
- c) Administrazioaren edo gizarte antolaketaren beste edozein esparrutako eskumenen barruan dauden kasu edo gaietan esku hartzea, osasunaren alorreko laguntzako etika batzorde, elkargoetako batzorde deontologiko, diziplinazko batzorde, batzorde sindikal edo bestelako batzordeak izan.
- d) Izaera betearazle edo loteslea duten txostenak eta dokumentuak ematea.
- e) Aholkua eskatzen dutenen erantzukizunaren ordezkatzaile izatea.

8. artikulua: Etika Batzordearen egiaztapena

Etika Batzordea egiaztatzea gizartean esku hartzeko etika batzordeak egiaztatzen dituen batzorde egiaztatzaileari dagokio, Gipuzkoako Foru Aldundiak xede horretarako eratu baitu.

GIZARTEAN ESKU HARTZEKO ETIKA BATZORDEAREN ARAUDIA (ETIKA BATZORDEA)

Etika Batzordeak aurkeztuko ditu, behar bezala beteta, Gipuzkoako Foru Aldundiak batzorde egiaztatzailearen bitartez zehazten dituen eskakizunak, baita indarrean dagoen barne araudia ere.

II. ATALA: ETIKA BATZORDEKO KARGUDUNAK ETA KIDEAK: OSAERA, EGITURA ETA EGINKIZUNAK

9. artikulua: Osaera

Etika Batzordean parte hartzea borondatezko ekintza da eta ez da ordaintzen; hala ere, Batzordea osatzen duten pertsonak erakunde edo entitateetako partaide direnean, horien parte-hartzea bultzatuko dute.

Etika Batzordeko partaidetza pertsonala izango da, eta Batzordea osatzen duen inor ez da inolako erakunde edo taldeko ordezkari izango.

Etika Batzordeak behar diren neurriak hartuko ditu osaera diziplina anitzekoa izan dadin, era horretan erraztu ahal izango baita azterketen gaineko ikuspegiak askotarikoak izatea, eta kasuak, gaiak eta prestakuntza ulertzea eta horiei buruzko erabakiak hartzea.

Etika Batzordean parte hartu ahal izango dute gizarte zerbitzuekin edo gizarte eta osasun zerbitzuekin lotutako jarduera profesionala edo borondatezkoa burutzen duten pertsonak, edozein prestakuntza, lanpostu edo ardura dutela ere.

Horiez gain, Etika Batzordeko partaide izan daitezke beste arlo batzuetan ari diren pertsonak, arlo horien izaera kontuan izanda –justizia, hezkuntza, osasuna, enplegua, etxebizitza eta abar– goiko paragrafoan aipatutako pertsonekin koordinatuta jarduteko aukera dutenean.

Etika Batzordeak 10 kide izango ditu gutxienez, eta ez ditu 25 baino gehiago izango, ahal bada. Pertsona hauek, gutxienez, izango dira batzordekideak:

- Gizarte zerbitzuen arloko erabiltzaileekin zuzeneko harremana izan ohi duten lanpostuetan ari diren pertsonak.
- Laguntzaren alorreko lanpostua ez duten pertsonak.
- Pertsonen eskubidearen defentsan eskarmentua eta izena duen gizartearen ordezkari bat.
- Etikan goi-mailako prestakuntza duen pertsona bat.

Etika Batzordeko edozein kidek eduki dezake goian adierazitako ezaugarrietako bat baino gehiago.

GIZARTEAN ESKU HARTZEKO ETIKA BATZORDEAREN ARAUDIA (ETIKA BATZORDEA)

Etika Batzordeko kideen % 80k, gutxienez, prestakuntza izan behar dute laguntzako etikan –90 ordu gutxienez egiaztatuta–.

Etika Batzordeak eska dezake une jakin batzuetan profesionalek parte hartzea, aditu gisa.

10. artikulua: Egitura

1. Etika Batzordeko kideen artean, hiru aukeratuko dira lehendakaria, lehendakariordea eta idazkaria izan daitezten. Hautaketa egitean guztien adostasuna lortzen ez bada, batzordekideek lehenengo bozketan ematen dituzten botoen bi herenen gehiengoa izanda hautatuko dira; era horretan inork gehiengoa lortzen ez badu, bigarren bozketa eta hirugarrena egingo dira, boto gehien izan dituzten pertsonen artean aukeraketa egiteko.
2. Bozketaren emaitza gizarte zerbitzuen eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiaren departamentuari jakinaraziko zaio.
3. Izendapen horiek hiru urteko iraupena izango dute, baina berriro ahal izango dira hiru urte gehiagoz.

11. artikulua: Lehendakaritzaren eginkizunak

Hauek izango dira Etika Batzordeko Lehendakaritzaren eginkizunak:

- Etika Batzordearen bilera guztietarako dei egitea.
- Etika Batzordearen bilera guztietan buru izatea eta bilerak gidatzea.
- Idazkariarekin batera, bilerei dagozkien aktak sinatzea, Etika Batzordeko kideek aktak onartu eta gero.
- Etika Batzordearen ordezkaria izatea.
- Hartutako erabakiak bete daitezten zaintzea.
- Etika Batzordearen helburuak eta xedeak bete daitezten zaintzea.

12. artikulua: Lehendakariordetzaren eginkizunak

Lehendakaria eta idazkaria ez daudenean, horien ordezkari izango da Lehendakariordetzan ari den pertsona, eta bere eginkizunak ordezkariordetzaren pertsonak dituztenen antzekoak izango dira.

13. artikulua: Idazkaritzaren eginkizunak

Hauek izango dira Idazkaritzaren eginkizunak:

- Etika Batzordearen bilera bakoitzari dagozkion deialdiak eta gairerrendak bidaltzea.
- Etika Batzordearen bilerei dagozkien aktak idaztea.
- Lehendakaritzan ari den pertsonarekin batera, bilerei dagozkien aktak sinatzea.
- Etika Batzordearen postazko harreman arruntez arduratzea.
- Agiriak artxibatzea eta zaintzea.
- Etika Batzordeko kide guztiei zirkularrak, agiriak eta batzordeari buruzko informazioa bidaltzen zaizkiela bermatzea.
- Urteroko memoria idatzi behar duen batzordea koordinatzea.
- Kideak agertzen ez direnean emandako zuribideak jasotzea, eta Etika Batzordeari borondatezko bajen berri ematea.

14. artikulua: Etika Batzordeko kideen eginkizunak

Hauek izango dira batzordekideen eginkizunak:

- Etika Batzordearen bilera guztietan parte hartzea.
- Etika Batzordearen bileretan eta lan saioetan era aktiboan parte hartzea.
- Etika Batzordeko lehendakariari ezohizko bilerak egiteko deialdiak proposatzea.
- Etika Batzordeko kargudunak hautatzeko bozketetan parte hartzea.

III. ATALA: FUNTZIONAMENDUA

15. artikulua: Etika Batzordeko kide izatea

1. Etika Batzordeko kide izan daitezke ezaugarri hauek dituzten pertsonak:

- a) 9. artikuluan adierazitako ezaugarriak.

GIZARTEAN ESKU HARTZEKO ETIKA BATZORDEAREN ARAUDIA (ETIKA BATZORDEA)

- b) Etikan edo bioetikan ezagutza izatea.
 - c) Gai horietan interes egiaztatua izatea.
 - d) Etika Batzordean lan egiteko prest egotea.
 - e) Bilerak eta lana egiteko denbora izatea.
2. Edozein pertsona Etika Batzordeko kide izateko, interesatuak berak hala eskatu beharko du, eta beharrezkoa izango da Etika Batzordean dauden plaza hutsak betetzeko deialdia egitea.
3. Etika Batzordeko kideek eztabaidatuko dute jasotako eskaeren inguruan, eta egiten duten hautaketaren emaitza gizarte zerbitzuen eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiaren departamentuari jakinaraziko zaio.

16. artikulua: Etika Batzordeko kide izateari uztea

1. Etika Batzordeko partaideak baja izango dira Batzordean egoera hauetan:
- a) Partaideak berak eskatzen duenean, Etika Batzordeko lehendakariari zuzendutako idazki baten bidez.
 - b) Etika Batzordeak hala erabakitzen duenean.
 - c) Kide izateko epea amaitzen denean, epe hori luzatzen ez bada.
2. Hauek izan daitezke kidea izateari uzteko kausak:
- a) Arauak eta eginkizunak ez betetzea, eta batzordekide bezala nork bere gain hartutako konfidentzialtasuna eta isilpekotasuna gordetzeko betebeharrak ez betetzea.
 - b) Urtean egiten diren ohizko bileren heren batera gutxienez ez joatea eta ez joate hori ez arrazoitzea; edo bileren erdian baino gehiagotan ez parte hartzea, ez parte hartze hori arrazoituta badago ere.
3. Etika Batzordeko edozein kidek kide izateari uzteko, kide guztien bi herenen gehiengoaren bidez adostuko da, isilpeko bozketan.
4. Etika Batzordeko kideen baja guztiak gizarte zerbitzuen eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiaren departamentuari jakinaraziko zaizkio.

17. artikulua: Etika Batzordea berritzea

GIZARTEAN ESKU HARTZEKO ETIKA BATZORDEAREN ARAUDIA (ETIKA BATZORDEA)

1. Etika Batzordea hiru urtean behin berrituko da, eta zehazki kideen heren bat, ahal bada.
2. Berrikuntzak deialdi irekiaren bitartez egingo dira.
3. Jasotako eskaerak Etika Batzordeak egiten duen hurrengo bileran eztabaidatuko dira, edo horretarako berariaz egingo den bileran, eta gai-zerrendaren gai bakarra Etika Batzordearen berrikuntza izango da.
4. Kide berriek bete ahal izango dituzte hiru urtean behin egindako berrikuntzaren ondorioz hutsik geratutako lekuak.
5. Etika Batzordeak pertsona bat kide izateko erabakia hartzeko, beharrezkoa izango da bi herenen gehiengoa lortzea. Gehiengoa lortzen denean, erabakia gizarte zerbitzuen eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiaren departamentuari jakinaraziko zaio.
6. Etika Batzordeak lantaldeak edo/eta mintegiak antolatu ahal izango ditu, eta bertan, besteak beste, Etika Batzordeko kide izateko eskaera egin baina, bete gabeko plazarik ez dagoelako edo izendatua izateko beste norbait proposatu delako, eskaera onartu ez zaien pertsonak parte hartu ahal izango dute.

18. artikulua: Etika Batzordearen bilerak

Oro har, GEBEH Gipuzkoak hilean behin egingo ditu bilerak.

Etika Batzordeko Lehendakariak eta Idazkaritzak bileren egutegia prestatuko dute urtero, eta Etika Batzordeko gainerako kideei aurkeztuko diete, onartua izan dadin.

Etika Batzordeko partaideek ezin izango dute inor eskuordetu batzordearen bileretan parte har dezan, eta, era berean, inork ez du batzordekideak aldi baterako ordezkatzetik izango.

Etika Batzordearen bileretan adierazitako guztia aktan jasota utziko du Idazkaritzak.

Etika Batzordearen bilerak ohizkoak edo ezohizkoak izan daitezke.

19. artikulua: Ohizko bilerak

1. Ohizkoak izango dira Etika Batzordeak hasiera batean onartutako egutegian aurreikusita dauden bilerak, eta baita premiazkoak ez diren eta ohizko bilerei buruzko araudian aurreikusita dauden epeen barruan iragartzen diren bilerak ere.

GIZARTEAN ESKU HARTZEKO ETIKA BATZORDEAREN ARAUDIA (ETIKA BATZORDEA)

2. Ohizko bilerak hamabost egun lehenago gutxienez iragarri behar dira, kasuak eta kasuen inguruko dokumentazioa aztertzea erraztearren.
3. Deialdiekin batera, bileran aztertuko den gai-zerrenda azalduko da, eta bilera non, noiz eta zer ordutan egingo den zehaztuko da.
4. Oro har, Etika Batzordearen ohizko bileretan honako gai hauei buruz hitz egingo da:
 - c) Etika Batzordearen beraren kudeaketarekin lotutako jarduerak.
 - d) Jarduteko gidaliburuak, protokoloak eta abar egiteko prestakuntza eta aholkularitzako jarduerak.
 - e) Kasuen inguruko eztabaida.
5. Ohizko bilera egin ahal izateko, kideen erdiak eta bat gehiago bertaratu beharko dira, eta bileran parte hartzen duten kideetako bat Etika Batzordeko hiru kargudunetako bat izango da.

20. artikulua: Ezohizko bilerak

1. Ezohizko bilerak izango dira premiaz egin beharrekoak eta ohizko bilerak egiteko epeak betetzeko ezintasuna dagoenean egin behar direnak.
2. Etika Batzordeko edozein kidek proposa dezake ezohizko bilera egiteko deialdia zabaltzea, premiazko gaiak direla-eta hala behar denean.
3. Bilera, ahal bada, 48 orduko epearen barruan egingo da, deialdia egiten den unetik hasita.
4. Deialdia ahoz edo beste edozein bitarteko erabilita egin daiteke, eta beharrezkoa izango da hiru kide gutxienez bilerara joatea eta Lehendakaritza edo Idazkaritza aldeztatik jakinaren gainean jartzea.
5. Etika Batzordearen ezohizko bileretan eztabaidatzen diren gaiak nahitaez izan beharko dira ezohizko bileretarako deialdia egiteko arrazoi izan ziren gaiak.
6. Etika Batzordearen ezohizko bileretan eztabaidatzen den gaia hurrengo ohizko bileraren gai-zerrendako gaitako bat izango da, Etika Batzordeko kide guztiek horren berri izan dezaten.

IV. ATALA: LAN METODOLOGIA

7. artikulua: Etika Batzordera jotzea

1. Laguntzako kasuak

- a) Aholkua eskatzen duenak (profesionala, erabiltzailea edo senidea) egin beharko du, zuzenean, kasuak aztertzeke eskaera, eta kasuarekin zerikusia duten guztiei aldeaz aurretik jakinaraziko die Etika Batzordeari aholkua eta txostena eskatuko dizkiola.
- b) Eskaera Etika Batzordeko Idazkaritzaren bitartez egingo da, eta kasuaren laburpena idatzita daukan orri bat aurkeztu beharko da.
- c) Egoera berezietan, onartu egingo da eskaera Etika Batzordeko edozein kideren bitartez egitea.
- d) Etika Batzordeak erabakiko du kasu bakoitza Batzordeak berak aztertu behar duen edo beste erakunde batera igorri behar den. Kasuarekin zerikusia duten pertsonetako bat berariaz aurka agertuz gero, Etika Batzordeak ez du eskaera onartuko.

2. Gomendioak emateko agiriak

- a) Etika Batzordeak bere kabuz jardun dezake behin eta berriz gertatzen diren gatazka egoeren aurrean, Batzordeak egiten dituen azterketa eta aholkularitza lanek egoera horiek hobeto ditzaketela uste baldin badu.
- b) Agiri mota honen bidezko aholkua eska dezakete Gipuzkoako gizarte zerbitzuetan eta gizarte eta osasun zerbitzuetan esku hartzen duten pertsonak, eta Etika Batzordeko Idazkaritzara jo beharko dute horretarako.
- c) Etika Batzordeak erabakiko du kasu bakoitza Batzordeak berak aztertu behar duen edo beste erakunde batera igorri behar den, eta baita eskaerari erantzuteko zer epe aurreikusten duen ere, egiten ari den jardueraren arabera.

3. Prestakuntza

Etika Batzordeak, Batzordeak berak hala erabakita edo/eta gizarte zerbitzuetako eragileen eskaera aintzakotzat hartuta, laguntzako etikaren alorreko prestakuntza sustatuko du, langileei horri buruzko informazioa emango die eta prestakuntza egiteko erraztasunak eskainiko dizkie, eta eskura dauden baliabide guztiak erabiliko ditu horretarako.

22. artikulua: Etika Batzordearen ebazpenak

GIZARTEAN ESKU HARTZEKO ETIKA BATZORDEAREN ARAUDIA (ETIKA BATZORDEA)

1. Etika Batzordeak erabakiko du kasu, agiri eta prestakuntzari buruz, kideek eztabaida egin eta gero, eta, ahal izanez gero, saihestu egingo da bozketak egitea.

Adostasuna lortu ezin den egoeretan, zentzuketaz joko da parte hartzen ari diren kideen gehiengo soilak biltzea; gehiengo soilaz ulertuko da botoen kopururik handiena lortzea.

2. Irizpenak idatziz egingo dira beti, eta arrazoiak adierazi beharko dira. Irizpenaren kopia bat bidaliko zaio, bakar bakarrik, Etika Batzordearen jardura eskatu duenari.

Etika Batzordearen irizpenak gomendiozkoak izango dira beti, eta ez dira lotesleak izango eskaera egin duenarentzat, ezta batzordekideentzat ere. Irizpen horiek ez dute inolaz ere ordezkatzeko aholku-eskatzaileren erantzukizuna.

Emandako ebazpenekin ados ez dauden Etika Batzordeko kideek zerekin ez dauden ados adierazi eta hori arrazoitu beharko dute ematen den txostenean.

23. artikulua: Konfidentziasuna

1. Etika Batzordeko kide guztiek nahiz egindako lana ezagutzen duten pertsona guztiek bermatu egin beharko dute eskura dezaketen informazio guztiaren konfidentziasuna, eta baita batzordekideen arteko eztabaiden isilpekotasuna ere.
2. Konfidentziasuna eta isilpekotasuna gordetzeko betebeharrak hori ez betetzea arrazoiak izango da, Etika Batzordeko kideen kasuan, 11. artikuluan aurreikusitako baja emateko. Etika Batzordeko kideak ez direnean, urraketa hori eragozpena izango da Etika Batzordeak aurrerantzean egiten dituen bileretan batzordekide edo aditu bezala parte hartzeko.
3. Etika Batzordearen artxiboa Batzordeko Idazkaritzaren gordailupean geratuko da. Artxiboan akten jatorrizko agiriak, txosten guztien kopia bana eta informazioa biltzeko eta ebaluazioa egiteko prozesuan sortutako gainerako agiriak gordeko dira. Etika Batzordeko edozein kidek kontsultatu ahal izango du artxiboa.

24. artikulua: Jarduerak

1. Kasuak eztabaidatzeko orduan, honako metodologia hau erabiliko da:

GIZARTEAN ESKU HARTZEKO ETIKA BATZORDEAREN ARAUDIA (ETIKA BATZORDEA)

- a) Aholkua eskatzen duenak laburpen bat aurkeztuko du, ahal bada idatziz, eta kasua azaldu beharko du bileran, Etika Batzordeak horretarako deia egin eta gero.
- b) Kasua azaldu eta gero, hasiera emango zaie hitz egiteko txandei, argibideak emateko, eta kasua aztertzearen aldeko edo aurkako erabakia hartuko da.
- c) Kasua onartzen denean, eta kasua hobeto ulertzearen, Etika Batzordeak adituen iritzia eskatu ahal izango ditu eta kasuarekin zerikusia duten pertsonen zuzeneko informazioa eskatu ahal izango die egokitzat jotzen duen edozein alderdiri buruz, bileretan edo elkarrizketen bidez.
- d) Ondoren, eta beti ateak itxita eta erabateko konfidentzialtasuna gordeta, Etika Batzordeak eskuartean duen kasuan dauden gatazka etikoak identifikatuko ditu.
- e) Identifikatutako gatazken artean, txostena edo gomendioa behar dutenak zeintzuk diren erabakiko du, eta horien artean ezinbestez egongo dira eskaerarekin lotura zuzena dutenak.
- f) Azterketa etikoaren metodologia orokorra gauzatzeko, bioetikaren funtsezko printzipioak erabili beharko dira (kalterik ez egitea, justizia, autonomia eta ongintza), gatazkan zer neurritan agertzen diren eta zer ondorio dituen kontuan izanda, eta, egokia bada, analisiak egiteko beste metodo batzuk erabiltzea eragotzi gabe.
- g) Arrazoitutako eztabaida egin eta gero, txosten bat idatziko da, araudi honetan gaiari buruzko ataletan xedatutakoaren arabera landu eta emango dena. Txostenean, honako hau jasota egongo da:
 - Txostengileak aurkeztutako kasuaren laburpena.
 - Galderak egiteko fasean argitu diren alderdi garrantzitsuak.
 - Azaldutako arazoak.
 - Ekintzarako bideak:
 - o Arazo bakoitzaren aurrean proposatzen diren ekintzarako bideak azalduko dira, zehatz-mehatz.
 - o Ekintzarako bide bakoitzaren oinarria den analisiaren azalpen ez oso sakona egingo da, eta espero diren emaitzak adieraziko dira.
 - Arazo etikoen artean egon daitezkeen loturen laburpena egingo da.

GIZARTEAN ESKU HARTZEKO ETIKA BATZORDEAREN ARAUDIA (ETIKA BATZORDEA)

- Printzipio bioetikoek dituzten salbuespenen azalpena eman, salbuespenak arrazoitu eta etorkizunean horiek zuzentzeko proposamenak egingo dira.
- Norbanakoak botoa eman behar izanez gero, botoen azalpen esplizitu eta arrazoitua emango da.

Dokumentu horiek, Etika Batzordearen jarduera guztiak bezala, aholku-emaileak izango dira, eta ez dira erabakigarriak izango.

2. Lan batzordeak eratu ahal izango dira, txosten, gomendio eta protokolo orokorrak egiteko, eta Etika Batzordeak egindako bilkuran definitu eta onartzen den plangintza izango dute (kronograma, helburuak, eta abar). Batzorde horietan parte hartu ahal izango dute batzordekideak ez diren adituek.

a) Etika Batzordeak edo, bidezkoa bada, berariaz eraturako batzordeek egindako lanaren zirriborroa aurkeztuko dute behar den unean, Batzordeak eztabaidatu, aldatu eta onar dezan.

b) Gomendioak emateko agiriak gizarte zerbitzuetan gertatzen diren arazo orokor edo/eta errepikatzen diren arazoei buruzkoak izango dira gehienbat, eta behean adierazitakoa jasoko da bertan:

- Alderdi teknikoak: gaiari buruz egun dauden ezagupenen laburpena, bibliografian eta kontsultetan oinarrituta.
- Alderdi juridikoak: legedia, jurisprudenzia eta txosten juridikoak – horrelakorik balego–, indarrean dagoen legedian eta legelari adituei egindako kontsultetan oinarrituta.
- Alderdi etikoak: gatazka etikoen inguruko balio gatazkak, esperientziak eta hipotesiak.
- Alderdi tekniko, juridiko eta etikoei buruzko informazioan eta horien azterketan oinarrituta, xehetasunez adieraziko dira egon litezkeen ekintzarako bideak, Etika Batzordeak egindako lanak, bibliografia, eta izena duten organismo eta erakundeen gomendioak kontuan izanda.
- Gomendioak egiteko orduan guztien adostasuna lortu ezean, era esplizituan jasoko dira norbanakoen botoak, behar bezala arrazoituta.

Dokumentu horiek, Etika Batzordearen jarduera guztiak bezala, aholku-emaileak izango dira, eta ez dira erabakigarriak izango.

]]

3. Prestakuntzako jarduerari dagokienez, kontuan hartuko dira Etika Batzordeak berak antolatzen dituen ikastaroak eta mintegiak nahiz batzordekideek

GIZARTEAN ESKU HARTZEKO ETIKA BATZORDEAREN ARAUDIA (ETIKA BATZORDEA)

ikastaroetan, mintegietan edo interesgarria izan daitekeen bestelako prestakuntza jardueran parte hartzea.

4. Kudeaketako jarduerak Etika Batzordeko idazkaritzaren ardurakoak izango dira, eta ardura horren barnean egongo da, halaber, akten eta urteko memoriaren transkripzioa, betiere Etika Batzordearen bileretan erabakitakoari jarraituz.

25. artikulua: Urteko memoria

1. Etika Batzordeak urtero egiten dituen jardueri buruzko memoria bat idatziko du, eta gizarte zerbitzuen eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiaren departamentuari igorriko dio.
2. Urteko memorian deskribatu egingo dira behean adierazitako alderdi edo alorretan Etika Batzordeak burutu dituen jarduerak, hau da:
 - a) Etika Batzordeak egindako aldakuntzak.
 - b) Aurkeztutako gatazken bolumena eta ezaugarri nagusiak, betiere konfidentzialtasuna gordetzeko betebeharra betez.
 - c) Prestakuntza eta dokumentazioa.
 - d) Jarduteko protokoloen garapena.
3. Etika Batzordean zehazten den batzorde batek idatziko du urteko memoria, eta gainontzeko batzordekideek onartu beharko dute, memoriari dagokion urtearen hurrengo urteko lehenengo hiru hilekoan.

26. artikulua: Kanpoko harremanak

Etika Batzordeak egokitzat jotzen dituen harremanak izango ditu, edo lankidetzan arituko da, beste edozein batzorde, elkarte edo erakunderekin, Batzordearen helburu eta xedeekin lotura dutenean.

27. artikulua: Araudia aldatzea

Araudi honen zatiren bat aldatu ahal izango da, baldin eta Batzordearen eginkizunak gauzatzeko zailtasunak sortzen dituela jotzen bada, betiere barneko arazoak direnean eta gizarte esku-hartzearen alorreko etika batzordeak sortzeko eta egiaztatzeko araudian jasota ez daudenean. Araudian aldakuntzak egiteko, beharrezkoa izango da Etika Batzordeko kideen bi herenen gehiengoa lortzea.